

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2676

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, itunpeko ikastetxeetan eskola-eremua euskalduntzeko Nolega dirulaguntza deialdia egiten duena 2024-2025 ikasturterako.

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoak, honela dio bere 17. artikuluan: «Jaurlaritzak ikasleei nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantzaren emateko xedezko neurriak hartu eta euskara-giroa bermatuko du, barne nahiz kanpo-ekintzabideetan eta arduralaritzako ihardun eta agirietan euskara agizko adierazpide eginez». Honen haritik, Nolega izeneko ekimen sorta moldatu zuen Hezkuntza Sailak 1984tik aurrera. Atal horrek, urte hauetan guztietan eta gaur egun arte, etenik gabe hainbat ekimen bideratu, antolatu edota diruz lagundu du. Ahozko erabilera areagotzeko begira, deialdi sorta zabala eskaini izan du urtero. 2013-2014 ikasturteetik aurrera, ikastetxe gisa arlo honi modu bateratuan erantzungo dion ekimena proposatu zuen. Horregatik, Nolega Deialdi Bateratuan lehengo ildo berezituak bildu dira: Ahozko Adierazpena (eskola antzerkigintza, bertso-lanketa, kantagintza, bideogintza, podcastak, kontalaritza eta irratigintza); Ikasgelaz kanpoko Ekintzak (IKE); Euskal Girotze Egonaldiak (EGE); eta Ikastetxeen arteko binakako loturak (Ikabil).

Joan den urtean argitaratutako Haur Hezkuntzako 75/2023 Curriculum Dekretuak, Batxilergoko 76/2023 Dekretuak eta Oinarrizko Hezkuntzako 77/2023 Curriculum Dekretuak ezarri dute, aurrekoen bide beretik, ikasle guztiek hizkuntza arloko funtsezko konpetentzia guztiak eskuratzeko delako xede nagusia. Zortzi funtsezko konpetentzia horien artean, hizkuntzari lotutakoak ditugu hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna. Ikasleei bi konpetentzia hauek eskuratzeko laguntzea funtsezkoa da, horrek ahalbidetuko die lako gainerako konpetentziak ere garatzea. Gainera, hiru dekretuetan ezartzen da ikastetxean bertan garatzen diren jardueretan eta kanpo-proiektuak jardueretan adierazpidea euskara izatea sustatu eta ziurtatuko dela.

Halaber, berriki onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren 17/2023 Legean ere aitortzen da «euskara izan behar dela, jeneralean, ikastetxean bertan garatzen diren jardueretarako eta kanpo-proiektuak jardueretako adierazpidea», baita hezkuntza-komunitate osoarena dela horretarako erantzukizuna ere. Bestalde, arau horretan jasotzen da Hezkuntza Sailak euskararen erabilera indartuko duela, «eskola-ekintzan hizkuntza horren ohiko erabilera normalizatzeko xedez» eta «arreta berezia eskainiko zaiola euskal kultura ezagutzeari» ere.

Horretarako, ez da nahikoa ohiko klase emankizunetan lantzen diren gaitasunak jorratzea. Gelako metodologia erabat paradigma komunikatiboetan kokatzeaz gain, eskola esparruko beste hainbat ekimen osagarri ere eskaini beharko dizkio ikasleari. Batez ere, ikasleengan hizkuntza-gaitasuna eta bat-bateko jarioakortasuna bermatu nahi da. Horretarako, eskola-giroan hizkuntza lantzeko saiakerak biziak eta naturalak egiten dira; saiakerok babestea eta sustatzea du helburu deialdi honek, ikaslearen bizipenetan, adierazpenetan eta irudikapenetan euskara txertatuz.

Deialdi hau Hezkuntza Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita dago, Hezkuntza sailburuaren aginduan, 2024ko otsailaren 6koan, onartua. Hezkuntza Sailburordetzaren mendeko Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza Zuzendaritzak ezarritako 8. helburu estragikoan eta 1. dirulaguntza-lerroan, 4715 aurrekontu-programan.

Beraz, orain artekoari jarraikiz, bidera daitezkeen gainerako ekintzei kalterik egin gabe eta beste aurrerapauso bat emanez, 2024-2025 deialdia egitea erabaki da.

Agindu honek aurreikusi ez duenari dagokionez, aintzat hartuko dira bai 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, bai 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta, halaber, dirulaguntza publikoak erregulatzen dituzten 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze-koa; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautzen duena.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da, 2024-2025 ikasturtean, itunpeko ikastetxeetan eskola-eremuan euskararen erabilera bultzatzeko asmoz NOLEGA dirulaguntza-deialdia egitea eta I. eranskinean dauden oinarriak onartzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan araututako laguntzetan ez dira betetzen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 1. apartatuan ezarritako betekizun guztiak; beraz, ez dira estatu-laguntzat hartzen, eta, ondorioz, ez zaio Europar Batasunari jakinarazi behar. Hain zuzen, laguntza hauek ez diote Europar Batasunaren barneko merkataritzari eragiten, merkatu lokal batera xedatzen diren produktuak direnez. Horrenbestez, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunak 108.3 artikuluan xedatzen duen jakinarazpen prozeduratik salbuetsita daude laguntza hauek.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean. Bi epe horiek agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera ekarriko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 21a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

OINARRI-ARAUAK

1.– Zein ekintza lagunduko diren eta zeintzuk diren baldintzak.

Dirulaguntza deialdi honen bidez, ikasgela barruan zein kanpoan burutzekoak diren jarduera hauek lagunduko dira diruz:

a) Ahozko Adierazpena. Ikastetxeetan hizkuntzaren ahozko erabilera egoera ez formaletan bultzatzea, eskola-giroa euskalduntzeko asmoz egiten diren saio-jardueren bitartez: eskola antzerkigintza, bertso-lanketa, kantagintza, irratigintza, bideogintza, podcastak, kontalaritza eta ikasleen ahozko adierazpena hobetzeko asmoz eskolara gonbidatuak ekartzea. Jarduera horiek ikastetxearen beraren erantzukizuna izango dira, eta zuzendaria izango da ikastetxearen ordezkaria.

b) IKE (Ikasgelaz Kanpoko Ekintzak). Euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, ikasgelatik kanpo eginiko jarduerak:

b.1.– Ikastetxearen barruan, arlo akademikotik kanpo, euskaraz bizitzeko helburuarekin prestatutako jarduerak (jarduera bere osotasunean lagunduko da diruz: lanketa fasea, emanaldia, atrezzoak, bibliografia, jantziak..)

b.2.– Guraso, langile ez-irakasle edota irakasleentzat antolatutako berariazko jarduerak, betiere horien helburua ikasleen erabilera areagotzea denean.

Ikastetxean euskararen erabilera sustatzeko egiten diren jarduerak modu zabalean hartuko dira kontuan atal honetan, alegia, ikastetxearen antolamenduarekin zein pertsonen dinamizazio-motibazioarekin zerikusia dutenak, eta dagokion ikastetxeko planean kontuan hartuta daudenak.

Atal honen barruan ez dira sartuko, bestalde, berariazko laguntza bidea duten irakasleen prestakuntza edo berrikuntza-jarduerak: Irale, Prest Gara...

b.3.– Erabilera areagotzeari lotutako eskola antolamenduzko jarduerak: hizkuntza paisaia, liburutegia, idatzizko arauak...

Ekimen hauen helburu nagusia euskararen erabilera bultzatzea eta ahozkotetasuna lantzea dela kontuan hartuta, ez dira diruz lagunduko arte-lanketarako, gorputz-espresiorako, ikus-entzunezko efektuetarako eta abarretarako gastuak; ezta horrelako beste edozer hobetzeko erabiliko liratekeen gastuak ere.

c) EGE (Euskal Girozte Egonaldiak). Euskal giroan bizipena eskaintzeko asmoz antolatutako egonaldiak. Gutxienez 2 gaueko iraupena izan behar dute diruz lagunduak izateko.

Sailak kudeatzen dituen Euskal Girozte Barnetegietan egiten diren egonaldiak berariaz lagunduak direnez, ez dira diruz lagunduko deialdi honetan.

d) IKABIL (Ikastetxeen arteko binakako loturak). Euskal kultura, hizkuntza zein gizarte-giro desberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa areagotzea helburu duten ikastetxeen arteko truke-irteerak.

Kultura molde, euskal hizkera zein gizarte-giro desberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa areagotzeko egiten diren ikastetxe-trukeak izango dira lagunduak. Truke orok 2 gaueko iraupena izan behar du gutxienez. Normalean bi egonaldi izango dira, truke-kide bakoitzaren lekuan bana, alegia. Halere, salbuespen bezala, egonaldi bakarra egin ahal izango da, adostutako aterpe batean

edo ikastetxe bakar baten herrian, bi ikastetxeen arteko distantziagatik edo beste arrazoiren bat dela medio.

Trukea EAEko ikastetxeen artekoa denean, ikastetxe biek bete behar dute eskabidea. Trukea Nafarroako edo Iparraldeko ikastetxe batekin egin nahi bada, berriz, EAEkoak soilik egingo du eskabidea, eta dirulaguntza osoaren jasotzailea ere bera izango da.

2.– Jarduerak burutzeko epea.

Dirulaguntza deialdi honek 2024-2025 ikasturtean egingo diren egitasmoak baino ez ditu kon-tuan hartuko. Deialdi honen bitartez diruz lagundutako egitasmoak 2025eko ekainaren 15a baino lehen eskaini, eman, aurkeztu edota gauzatuko dira.

3.– Diru-baliabideak.

Dirulaguntza deialdi honetarako erabiliko den diru-kopurua 190.000 eurokoa da.

4.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1.– Agindu honen babesean ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako eman ditzaketenekin, agindu honetako 1. oinarriko b.2 atalean adierazitakoak salbu. Hala ere, dirulaguntzaren kopuruak ez du inola ere, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin, diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko. Kasu horretan, deialdi honen bidez emandako kopurua dagokion zenbatekora murriztuko da.

2.– Deialdi honetara aurkezten diren ikastetxeek, dirulaguntzagai diren jarduerak egiteko, beste erakunde publiko edo pribatutatik dirulaguntzarik eskatuta badute, edota halakorik jaso badute, horren azalpena egin beharko dute, berariaz, eskabide-orrian, dagokion atalean.

5.– Onuradun izateko betekizunak.

1.– Dirulaguntza deialdi hau Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko itunpeko ikastetxei zuzenduta dago, hain zuzen ere maila hauek eskaintzen dituztenei: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Horiez gain, deialdi honetan parte hartzeko aukera izango dute maila horietan aritu ez arren, Ulibarri programan dauden ikastetxeek.

2.– Ikastetxe onuradunek egunean egon beharko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituztenak betetzeari dagokionez, eta dirulaguntzak itzultzeko ordainketa-betebeharrei dagokienez.

Hori horrela, 887/2006 Errege Dekretuaren 22.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza-eskaera aurkeztean, eskatzaileak baimena emango dio dirulaguntza ematen duen organoari, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikuluetan xedatzen direnak egiazta ditzan. Hori bai, eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimena, baina, orduan, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan xedatzen den egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Edozein ordainketa egin baino lehen, ikastetxe onuradunek zerga-betebeharrak eta, Gizarte Segurantzari nahiz dirulaguntzak itzultzeko prozedurei loturikoak beteta dituztela egiaztatuko da.

3.– Ezingo dira deialdira aurkeztu, oro har, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden ikastetxeak.

6.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan ezartzen diren baldintzak eta betekizunak bete beharko dituzte deialdi honetako dirulaguntzak eskuratu nahi dituztenek, besteak beste, honako hauek:

a) Dirulaguntzak oinarri duen helburua lortzea, eta horretarako eskabidean zehaztutako helburuak burutzea.

b) Baldintzak bete direla egiaztatzea, eta dirulaguntza deialdiak dituen jarduerak bete direla eta helburuak lortu direla ziurtatzea.

c) Egin daitezkeen egiaztatze eta kontrol finantzarioei men egitea, horretarako beharrezko informazio guztia aurkeztuz. Deialdi honen bidez jasotako dirulaguntzaren inguruan Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edota Euskal Herriko Kontu Epaitegiak bere egitekoak betez eska dezan edozein informazio eskaintzera behartuta dago dirulaguntza-jasotzailea.

d) Diruz lagunduriko jarduerentzat bestelako dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu direla jakinaraztea. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta izatekotan, deialdiaren bidez esleitutako dirulaguntza eskuratu aurretik.

e) Jasotako dirulaguntza hartu dela egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontroleko jarduerak aurrera eraman ahal izateko.

f) Dirulaguntzei buruzko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legearen 27. artikuluan ezarritakoa betetzea, alegia, dirulaguntzen bidez burutzen diren ekimenen iragarki eta publizitatean ekimenak diruz lagunduak direla aipatzea.

g) Jasotako dirulaguntza itzultzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legeak 36. artikuluan aipatzen dituen kasuetan.

2.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko martxoaren 3ko 1/2022 Legean xedatutakoari jarraikiz, hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez egitea.

3.– Ikasleen aniztasuna aitortzea eta errespetatzea, eta gaitasun diferentea duten ikasleen beharretara egokitzeko aukerak ematea, askotariko errealitateak kontuan hartuta, aipaturiko 236/2015 eta 237/2015 dekretuek arautzen dutenez.

4.– Ikasturtean zehar egindako jardueren azalpen-memoria eta gastuak justifikatzeko dokumentua bete eta aurkeztu beharko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez, deialdi honetan ezarritako epean.

7.– Eskabidea eta formularioak aurkezteko prozedura.

1.– Eskabidea modu elektronikoan egin beharko da. Dirulaguntza deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskabidea Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko dute: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0101916> gunean, eta bi urratsetan:

a) Lehenengo urratsa edo aurre-eskabidea: bertan, egingo diren jardueren lotutako datuak sartuko dira. Aurre-eskabidearen zenbakia gorde egin behar da eskabidea egiteko.

b) Bigarren urratsa edo eskabidea: aurre-eskabidea bidali eta gero, eskabidea egin behar da. Horretarako, eskabidea bete, sinatu eta bidali egin beharko da. Eskabidea egiteko, beharrezkoa izango da identifikazio elektronikorako bitartekoren bat edukitzea.

Eskabidea egiteko azalpenak, eskabide-orriak eta gainerako agiriak ere helbide horretan egongo dira eskuragai, oinarri hauen eranskinean ageri diren bezala.

2.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Ikastetxe bakoitzak eskabide-orri bakar bat aurkeztu ahal izango du deialdi honetara. Eskabide-orri bat baino gehiago aurkezten badira, erregistratua izan den azken eskabide-orria hartuko da kontuan.

4.– Administrazioan jasotako eskabidean hutsune edo osatu beharren bat sumatzen bada, honen berri emango zaio eskatzaileari eta 10 eguneko epea emango zaio, ondo osa dezan. Epe horretan osatu beharrekoa osatzen ez badu, ikastetxeak bere eskabideari uko egin diola ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.– Eskabidea egin ondoreneko izapideak Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen «Nire karpeta» atalean egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

6.– Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak onartu direla adierazten du.

7.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen identifikazio eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide hauetan eskura daitezke: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

8.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen erregistro elektronikoen helbidea hau da: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>.

9.– Tramitazio elektronikoa arautzen du ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuak, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoak.

8.– Deialdiaren organo kudeatzailea.

Deialdi honen kudeaketa Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari dagokio –Hezkuntza Saila, Hezkuntza Sailburuordetza–.

9.– Dirulaguntzak esleitzeko prozedura.

1.– Deialdiko baldintzak betetzen dituzten ikastetxe guztiei esleituko zaie dirulaguntza.

2.– Gehienez 3.000 euroko dirulaguntza esleituko da ikastetxeko.

3.– Eskabideak aztertu eta ondorengo irizpideak kontuan hartuta, dirulaguntza-proposamenak egiteko ikastetxe bakoitzari puntuazio bat esleituko zaio. Deialdiak duen diru-baliabidea puntuazio hauen arabera banatuko da.

2024ko ekainaren 3a, astelehena

PUNTUAZIOAREN OSAKETA (OP1+OP2+OP3+OP4) + GR1 = 110 p. gehienez			
Oinarrizko Puntuazioa – OP1+OP2+OP3+OP4			
Jarduerak	Puntuak atalka	Gehieneko puntuak	Puntuazio osoaren gaineko balioa
OP1 – AA Ahozko Adierazpena. Ahozkoa lantzeko ikastetxe barruko jarduerak honela baloratuko dira:		100	% 31
Eginiko ekimenak: Antzerkigintza, bertso-lanketa, kantagintza, irratigintza, bideogintza, podcastak, kontalaritza, gonbidatuak	3,75 puntu ekimeneko	30	
Parte hartzen duten gelen kopurua	1 p. gelako	30	
Parte hartzen duten ikasleen kopurua: puntu bat 10 ikasleko (gutxiago badira, proportzioan dagokiona), eta gehienez 30 puntu.	1 puntu 10 ikasleko	30	
Saioaren jendeartekotzea	10 p. geh.	10	
Ikastetxeko ikasleen aurrean	2,5		
Ikastetxeko ikasleen eta gurasoen aurrean	5,0		
Ikastetxeko ikasleen, gurasoen eta herritarren aurrean	7,5		
Ikastetxeko ikasleen, gurasoen, herritarren eta beste ikastetxeen aurrean	10		
OP2 – IKE Ikasgelaz Kanpoko Ekintzak		100	% 23
Ekimenaren eremua: Gela, patioa, jangela, pasilloa, liburutegia, autobusak eta bestelakoak	10 puntu eremuko	70	
Parte hartzen duten ikasleen kopurua	1 puntu 10 ikasleko	30	
OP3 – EGE Eskolaz Kanpoko Egonaldiak. Euskararen erabilera sustatzeko eskolaz kanpoko egonaldiak baloratzeko, kontuan hartuko da:		100	% 23
Parte hartzeagatik	20 puntu	20	
Gau-igarotze kopuru osoa ikastetxetik kanpo	0,267 p. gau bakoitzeko	80	
OP4 – IKABIL Inguruko beste euskal giro edo euskalki desberdineko ikastetxeetako ikasle eta familiekiko harremanak lortu eta sendotzeko trukeak egiten badira, kontuan hartuko da:		100	% 23
Parte hartzeagatik	20 puntu	20	
Gau-igarotze kopuru osoa ikastetxetik kanpo	0,15 p. gau bakoitzeko	45	
Trukekideak Nafarroakoak edo Iparraldekoak badira	35 puntu	35	
Graduatzailea – GR1			
GR1 – Ulibarri programa Hizkuntza Normalkuntzako planaren barruan (Ulibarri programa) egoteagatik, jasotako puntuazio osoaren % 10 gehituko zaio lortutako puntuazioari.		+ % 10	

4.– Puntuazio horren arabera, ikastetxeak bere jardueren arabera puntuak lortuko ditu eta, gainerako ikastetxeen puntuazioarekin norgehiagoka, diru-kopurua esleituko zaio, dirulaguntza-deialdiaren muga kontuan hartuta.

10.– Ebazpena.

1.– Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. eta 22. artikuluen arabera, deialdiaren behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du espediente aztertu ondoren. Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen iragarki-taulan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) argitaratuko da behin-behineko ebazpen-proposamena, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen

45. artikuluan ezarritakoa jarraikiz. Iragarki-taulan egindako argitalpen horrek jakinarazpen mailako ondorioak izango ditu, argitaratu eta biharamunetik hasita.

2.– Interesdunek 10 eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko, eta alegaziorik ez badago, proposatzen den ebazpena behin betikoa izango da. Interesdunek alegazioak egiten badituzte, horiek aztertu ondoren egingo da behin betiko ebazpenaren proposamena, eta kudeaketa-fasean onuradun izateko proposatuak izan direnei jakinaraziko zaie, gehienez, sei hilabeteko epean, agindu hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

3.– Aurrekoa eragotzi gabe, organo kudeatzaileak oharrak bidali ahal izango dizkie interesdunei, SMS edo mezu elektronikoen bitartez, eskabide-orrietan adierazitako telefono mugikor edo posta elektronikoen helbideetara. Ohar horiek ez dute, inolaz ere, jakinarazpen formaren baliorik izango.

4.– Aipaturiko sei hilabeteko epean ebazpen espresurik ematen ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da. Organo eskudunak eskatutako dirulaguntzari buruzko berariazko ebazpena emateko betebeharra du.

5.– Prozeduraren ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

6.– Gardentasunaren ondorioetarako, emandako laguntzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26. artikulua araberak.

11.– Dirulaguntzaren ordainketa.

1.– Aurretiaz eta ordainketa bakarrean gauzatuko da ordainketa eta ebazpena argitaratu ondoren izapidetuko da. Ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunetik hasi eta hamar (10) eguneko epean ikastetxe onuradunek dirulaguntza onartzen ez badute, eskaerari uko egiten diotela ulertuko da.

2.– Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko hirugarrenen erregistroan alta emanda egon behar du dirulaguntza-jasotzaileak, dirulaguntza jaso ahal izateko. Alta emateko edota aurretik erregistratutako kontu-zenbakia aldatzeko, lotura honetan dagoen agiria aurkeztu beharko du: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

12.– Ebazpena aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatuz gero, eta betiere dirulaguntzaren helburua bete bada, edo beste erakunde publiko edo pribaturen batek, aldi berean, bestelako dirulaguntzarik eman badu, dirulaguntzak emateko ebazpena alda daiteke, 20/2023 Legearen 16.4 eta 25 artikuluen araberak. Horretarako, beharrezkoa den likidazio-ebazpena emango du Hezkuntzako sailburuordeak.

13.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Dirulaguntza jasotzen duten ikastetxeek, jarduera burutzen dutenetik 2025eko ekainaren 15era bitartean (azken egun hori barne) egin beharko dute egindako jardueraren justifikazioa, bitarteko elektronikoen bidez, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>. Bertan, ekintzei dagozkien balorazio-txostena eta diru-justifikazioa jasotzen dituen dokumentua aurkituko dute, III. eranskina bezalakoa. Justifikazioa egiteko jarraibide zehatzak helbide elektronikoen honetan azalduko dira: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0101916>

2.– Ikastetxeek, balorazio-txostenean oinarri hauetako lehenenengoan (1.– Zein ekintza lagunduko diren eta zeintzuk diren baldintzak.) ageri diren jarduera-motetan egindako jarduera zehatzak adierazi beharko dituzte, baita horien balorazioa ere, honako hauen arabera: 1etik 5erako balorazioa eta Euskararen erabileran batetik, eraginik izan duen, eta, bestetik, zein jarduerak izan duen eraginik handiena.

3.– Ikastetxeek, aurreko txostenarekin batera, jarduerak egin direla egiaztatzen duten gastu-frogagiriak, fakturak edo bestelako dokumentuak aurkeztuko dituen memoria ekonomiko batean, eta horrekin batera, zinpean adieraziko dute jasotako datuak egiazkoak direla eta agindu honek ezarritako betebeharrak betetzen direla.

4.– Jasotako dirulaguntzaren justifikazioa garaiz eta zuzen amaitzen ez duenak, Euskal Herriko Diruzaintza Orokorrari itzuli beharko dizkio jasotako diru-kopuruak eta legez dagozkien interesak, abenduaren 21eko 20/2023 Legeak IV. tituluan arautzen duen bezala eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak zehaztutako prozeduraren arabera.

14.– Eginbeharrak ez betetzea eta dirua itzultzea.

1.– Ikastetxeren batek dirulaguntza jaso eta ekimena aurrera eraman ez, edota baldintzaren bat bete gabe uzten badu, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio jasotako diru-kopuruak eta legez dagozkien interesak, abenduaren 21eko 20/2023 Legeak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak arautzen duten prozeduraren arabera.

2.– Modu berean jokatu da erakunde eskatzailea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotzen diren itzulketa-kasuren batean egonez gero.

15.– Datu Pertsonalen Babesa.

Agindu honetako prozeduretan erabiltzen diren eskabide eta dokumentazioetako datu pertsonalak Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak tratatuko ditu, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Ikaskuntzako eta Hezkuntza Berriztatzeako dirulaguntzak. Helburua, berriz, Ikaskuntzaren eta Hezkuntzaren Berrikuntza finantzatzea eta laguntzea da. Datu pertsonalen tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Ekonomia eta Ogasun Saila da hartzailea, eta interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea dute, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-cap2-eu.shtml

Araudia:

2016/679 (EB) Erregelamendua, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra:

(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa:

(www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

II. ERANSKINA

ESKABIDE-ORRIA

Ikastetxearen datuak:	
Ikastetxearen kodea	
Ikastetxea	
Telefonoa	
Helbidea	
Posta kodea	
Herria	
Lurraldea	
Posta elektronikoa	
Ikastetxe-mota	<input type="radio"/> Publikoa <input type="radio"/> Pribatua
Harremanetarako datuak:	
Telefonoa	
Izen-abizenak	
Hizkuntza proiektua	
<input type="radio"/> Ulibarri programan dago?	
<input type="radio"/> Hizkuntza proiektua egina dauka?	

Ahozko Adierazpena			
Jarduera	Taldeak	Ikasle kop.	Jende aurreko saioak, noren aurrean egingo dira? (*)
Antzerkigintza			
Bertso-lanketa			
Kantagintza			
Irratigintza			
Kontalaritza			
Gonbidatuak			
Bideogintza			
Podcastak			

(*) Ikastetxeko ikasleen aurrean / Ikasleen eta gurasoen aurrean / Herriaren aurrean / Beste ikastetxe baten aurrean

IKE - Ikasgelaz Kanpoko Ekintzak			
Zein eremutan egingo dira ekintzak?			
Esparrua	Ikasle kopurua	Noiz egingo da? (*)	Izen labur zehatza
Gelan			
Jolastokian			
Bazkalorduan			
Pasabideetan			
Liburutegian aldizkarian			
Autobus ibilbideetan			
Bestelakoetan			
Ekintzen azalpena: Zer eta nola egingo da?, deskribatu ekintza, ezagutzen ez dutenak ezagutzeko eran			

(*) Ikasturte osoan / Hiruhileko bitan / Hiruhileko batean

2024ko ekainaren 3a, astelehena

EGE - Euskal Girotze Egonaldiak					
Zk.	Gau kopurua	Ikasle kopurua	Noiztik	Noiz arte	Aterpetxea
1					
2					
3					
4					
5					
6					
Egonaldiaren nolakotasuna					

IKABIL - Ikastetxeen Arteko Binakako Loturak			
1. Trukea			
Ikasle kopurua			
Gau kopurua lehen egonaldian		Non?	
Gau kopurua bigarren egonaldian		Non?	
Arduradunaren izen-abizenak			
Trukakidea nongoa (*)		Herria	
Ikastetxea			
Arduradunaren izen-abizenak			

2. Trukea			
Ikasle kopurua			
Gau kopurua lehen egonaldian		Non?	
Gau kopurua bigarren egonaldian		Non?	
Arduradunaren izen-abizenak			
Trukakidea nongoa (*)		Herria	
Ikastetxea			
Arduradunaren izen-abizenak			

3. Trukea			
Ikasle kopurua			
Gau kopurua lehen egonaldian		Non?	
Gau kopurua bigarren egonaldian		Non?	
Arduradunaren izen-abizenak			
Trukakidea nongoa (*)		Herria	
Ikastetxea			
Arduradunaren izen-abizenak			

Egonaldi bi egin beharrean bakarra egiteko asmoa badago, azaldu arrazoiak:

(*) EAEkoa/Nafarrakoa/Iparraldekoa

2024ko ekainaren 3a, astelehena

III. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO ORRIA

NOLEGA DEIALDI BATERATUA: 2024-2025

Kodea:

Ikastetxearen izena:

Puntuazio orokorra (PO)

Laguntza eurotan

BURUTUTAKO JARDUEREN JUSTIFIKAZIOA

(Baloratu 1etik 5era, 1 puntuaziorik txikiena eta 5 handiena izanda).

AHOZKO ADIERAZPENA: Egoera ez formaletan, ahozko erabilera handitzeko asmoz egindako jarduerak. Zerrendatu eta baloratu jarduerak.

Baloratu
(1-5)

	Baloratu (1-5)

Euskararen erabileran izan al du eraginik?
Zein jarduerak izan du eraginik handiena? (500 karaktere)

IKE: Ikasgelaz Kanpoko Ekintzak. Zerrendatu eta baloratu jarduerak.

Baloratu
(1-5)

	Baloratu (1-5)

Euskararen erabileran izan al du eraginik?
Zein jarduerak izan du eraginik handiena? (500 karaktere)

2024ko ekainaren 3a, astelehena

EGE: Euskal Girozte Egonaldiak. Euskal giro batean bizipena eskaintzeko antolatutako egonaldiak. Zerrendatu eta baloratu egonaldiak. Aipatu maila, ikasle kopurua, egun kopurua eta non egin den egonaldia.

Baloratu
(1-5)

	Baloratu (1-5)

Euskararen erabileran izan al du eraginik? (500 karaktere)

IKABIL: Ikastetxeen arteko trukeak. Zerrendatu eta baloratu trukeak. Aipatu maila, ikasle kopurua, egun kopurua eta norekin egin den trukea.

Baloratu
(1-5)

	Baloratu (1-5)

Euskararen erabileran izan al du eraginik? (500 karaktere)

Oharrak eta proposamenak (500 karaktere)

